

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO
NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela eta, Oñatiko Udal honek, indarkeria mota honen egiturazko izaera nabarmentzen du, eta konpromisoa agertu nahi du emakumeon aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitze bidean. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrita, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa, justizia eta erreparazioa.

Beraz, tokiko gobernutik gure gain hartzen dugu biktimen arretaren arloan aitortutako erantzukizuna eta eskumena, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik gertuen gauden erakundeak garelako. Ildo horretan balioan jarri nahi dugu, Berdinsareko (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea) berdintasun-teknikarien lana, funtsezkoa eta baliotsua baita, orientatzeko eta jarduteko irizpide komunez hornitzeko; erakundeek indarkeria matxistaren biktimei udal-eskumenen esparruan erantzun koordinatua eta bateratua emateko.

Oñatiko Udalak, indarkeria matxistaren kontra jarduteko aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumenari erantzunez, indarkeria agerbide guztien aurkako lan lerroak finkatu eta horiek erdiesteko bitartekoak jartzea lehentasunezkoa da.

Datu estatistikoek indarkeria matxistaren aurpegi agerikoena agertzen digute: urtea hasi denetik 4 emakume erail dituzte Euskal Herrian. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela. Orden sozial, kultural, ekonomiko eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaitzen dituena, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeen eta gizonen arteko botere harremana irautzen dutena.

Aurten, mugimendu feministaren beste mugarri batean, milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak martxoaren 8an, aski dela ozen esateko; gizartearen eraketa patriarkala salatu, eta indarkeriarik eta botere harremanik gabeko gizarte justu baten aldeko aldarria eginez. Mugimendu feministak erakutsi digu bidea, eta nork bere esparruan, urratsak ematen jarraitu beharra dugu.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, eta bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartzen ditugu:

1.- Oñatiko Udal honek, Emakumeen Mundu Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du inplikaturako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratuko dituela. Ildo horretan, konpromezua hartzen du berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko eta Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die eurena ere handitzeko.

3.- Oñatiko Udal honek Justizia Sailari eskatzen dio epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko.

4.- Oñatiko Udal honek Erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa onartu eta elkarlan eta koordinaziorako lan mahaia 2020rako martxan jartzeko konpromisoa berresten du, horretarako beharrezko diren baliabideak ezarriz.

5.- Oñatiko Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza Eskola indartzeko konpromisoa hartzen du, hausnarketarako, ahalduntzerako eta emakumeen arteko saretzerako ezinbesteko espazioa dela ulertzen baitu.

6.- Oñatiko Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak indartuko ditu, eta horretarako, hezkidetza egitasmoa egonkortu, eta ikasturtean zehar identifikatutako beharrei erantzun egokia emateko baliabideak eskainiko ditu, gazteria eta hezkuntza departamenduekin lankidetza estutuz

7.- Oñatiko Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu, Gizarte zerbitzuen eta berdintasun departamenduaren arteko lankidetza indartuz, eta erreparaziorako giltzarri izan daitezkeen gakoak identifikatuz.

8.- Oñatiko Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.